



4 EUSKARA Hizkuntzaren hausnarketarako arnaguneak

Lore Agirre kazetari eta antropologoa hizkuntzaren inguruko hitzaldia eman zuen Villa Mirentxun. Bertan euskararen inguruan hainbat gogoeta plazaratu zituen. Hitzun komunitatea hizkuntzaren bultzatzaile da honen inguruan antolatzen duen edozein ekintzarekin. Aldi berean denon ardura da euskara ahalik eta esparru gehienetara zabaltzea honen biziraupena nahi bada.

5 LITERATURA 60. hamarkada gogora ekarri nahi izan du Amurizak

Xabier Amuriza bertsolari bizkaitarrak bere azken lana "4x4 operazioa" aurkeztu zuen asteazkenean Villa Mirentxun. Amurizarekin batera Lanku-ko Joxe Mari Altuna eta Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea izan ziren mahaian. Liburu hau "Joan ziren" zikloan laugarren liburukia da. Honetan hirurogeiko hamarkadaren azken urteetako "konbultsioa" jaso nahi izan du idazleak, Gogor izeneko apaiz mugimendua bereziki.



Kultura desberdinetako herritarrek solasaldi abesragarria eskaini zuten Udalbatzar aretoan. Haien emigrazio esperientzia eta bizipenak azaldu zituzten.

Elkar ezagutzeko topaketa Jatorri desberdinetako herritarrek haien bizipenak azaldu zituzten

Lasarte-Oriako Udalak Aztiker enpresarekin batera gure herrian kultura arteko ezagutza sustatzen ari da hainbat ekintzei esker. Asteazken arratsaldean Udalbatzar aretoan kulturen arteko topaketa izan zen. Honetan jatorri desberdinak dituzten zortzi herritarrek haien esperientzia azaldu zuten.

Araba, Bizkaia, Zaragoza, Huelva, Sahara, Nikaragua edo Txina. Hau da, besteak beste, Lasarte-Orian bizi diren herritarren jatorria. Gure herrian 70 herrialdeetako pertsonak bizi dira. Kultura desberdinak elkar ezagutzeko lanean ari da Lasarte-Oriako Udala eta horregatik, asteazkenean, herritarrek haien bizipenak azaltzeko aukera izan zuten kultur arteko topaketan.

Zortzi herritarrek, zazpi etorkin eta Lasarte-Orian jaio-tako pertsona batek haien burua aurkeztu eta emigratio prozesuaren ondorioz izandako bizipenak azaldu zituzten.

Haien azalpenetan hainbat gai jorratu ziren, familiaren emigratio historia, kultura txokea, zailtasun administrati-boak, lan baldintzak, harreman sarea edo bertako hizkuntzarekiko jokaera...

Solasaldi modura, guztiek haien ekarpenak egin zituzten Maite Higuero Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren gidaritzapean.

Amaieran, Udalbatzar aretoa hurbildu ziren herritarrek ere haien esperientzia eskaintzeko aukera izan zuten.

Lasarteoriatarrek elkar ezagutzeko aukera aberasgarria izan zuten, beraz, asteazkenean.

Lanketa sakona

Duela hilabete batzuk, Lasarte-Oriako Udalak Aztiker enpresaren laguntzaz emigratioari lotutako ikerketa kualitatibo bat burutu zuen. Honen bitartez, aniztasun kulturalaren inguruan lanketa

sakona egin beharra ikusi zen.

Orain dela hilabete, aniztasun kulturalari buruzko gaiez hitz egiteko Worldkafe bat antolatu zen Okendo plazan.

Honetan, kultura, migratioak edo kulturartekotasuna bezalako gaiei buruz mintatu zen. Iritziak elkarbanatu ziren eta jatorri desberdinetako jendearen artean elkar ezagutzeko nahiz gure udalerriko kultura bakoitzak bizi duen egoera ulertzeko beharra jaso zen.

Horregatik, hainbat ekimen antolatu dira elkar ezagutza bideratzeko, hala nola, hilabete hauetan zehar egin diren bilerak edo abenduan izango den kultur aniztasun jaialdia.

Oparitu heraldika eguberrian!

:Famili armarria
:Zuhaitz genealogikoa:
Pergamino, kartulina,
poliuretanoan, portzelanan
zein egurrean landuak.

Blasón
heraldika Tailerra
www.heraldicablason.es
blasonheraldica@gmail.com

San Lorenzo 6, Donostia
943 43 18 81

Eskez eginiko lanak

botika+
gandarias uribe

**Farmazia
Parafarmazia
Ortopedia**

ortopedia sekzioa

**Lasarte-Oriako
ORTOPEDIA bakarra**

Iñigo de Loiola 9
20160 Lasarte - Oria
Tel.: 943 019521
farmaortopediagaur@gmail.com

RPS 65/13

Neure kabuz



Jexux Artetxe

Gure lantegiak

Bizi dugun krisiaren erdian, egun-
go ogiar arduratzea biharko
gosea dela esatea etzait bategi
egokia iruditzen. Tristeia litzateke,
bai, gizakion bizitzaren itxarope-
na egunean eguneko bizi-iraute
hutsa mugatzea. Baina, onartu
beharko dugu oraingo beharrei
gure kabuz aurre egiteko gauza
ez bagara nekeza egingo zaigula
gure eskuko etorkizunik izatea.

Gure erabakien araberrako
geroa nahi dugunontzat, bistakoa
da atzeratzerik ezin dugun gizarte
eragintza behar dugula. Gauden
egoerari erantzuteko, kanpokoek
zor digutenaren zai egotetik ater-
tako atarramendua alferrenaren
indarretik espero genezakeenaren
parekoa dela. Hara zer idatzi
zuen Arizmendiarririk: "Inork
emotekoari edo egindakoari begi-
ra dagona inoren mende dago,
naiz erri edo gizon soil".

Eguneko ogia da, beraz, etor-
kizunaren oinarria. Eta egune-
roko ogibidea gure lantegietan
egiten dugu. Jakina da krisiak
enpresa ugari eraman dituela
zulora. Eta, hala ere, krisiaren
hondotik ateratzeko borroka-tokia
enpresa bera bihurtu dela ez dago
ukatzerik. Bizi dugun krisialdiak,
orobat, gure lantegiak eguneratu
eta eraldatzeko aldarte egokia
sortu duelako.

Hara hortxe Ganbo Iturri
elkartearen gogoeta. Ekonomia
errealaren mikro-esparruan gara-
tzen ari garena. Gure etxeetako
eta enpresetako egoera errealtari
soaz egin nahi duguna. Ekintzai-
letza eta lehiakortasuna eraldake-
taren erdigunean jarri behar
ditugu, bai. Baina, lurraldean erro
sakonak (eta lan-egileen kudeake-
ta partekatua) dituzten enpresak
edukitzetik bertakoen eskuago
geneukake gure etorkizunaren
jabetza. Hau da, guretzat, euskal
biderik baliotsuena.

Zorion agurrak



Siena

Zorionak, pitufina!
Etxeo alaitasuna zara.
Izugarri maite zaitugu!



Nahuel

Zorionak puma!!
Aitaxo, amatxo, Sayen
eta Luanaren partetik.
Muxu handi bat!!!



Maite eta Manuel

Zorionak biei zuen seme eta Lau-ren partetik.



Malen

Zorionak zure 7. urte-
betetzean. Ondo pasa!
Familiaren partetik



Aitor

Zorionak txapeldun!
Hamahiru muxu handi
familiaren partetik.



Lucia

Zorionak bihotza!
Zure hirugarren urte-
betetzean. Muxu
pottolo bat aitaren eta
amaren partetik!



Maria Luisa

Zorionak amona!
Ondo pasa egun
honetan. Muxu Xabi,
Nahia, Gaizka eta
Maialenen partez!



Leire

Zorionak maitia! Etxe-
ko sorgintxo urtebe-
te jada! Muxu handi
bat amatxo, aitaxo eta
Iratiren partetik.



Egoitz

Nire zorionik
beroenak zuri! Txoko-
marrubizko muxuak!!!!
Zure miresle sekretua.



Onintze

Zorionak printzesa!!
Besarkada handi bat
maite zaitugun
partetik!



Amaier

Ze guapa gure mari-
sorgina! Zorionak eta
5 muxu majiko, Ekain,
aitaxo eta amatxoren
partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pisua salgai Usurbilen, kapitxoz 2008an eraikia. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Oso funtzionala. Bizitzen jartzeko moduan. Garaje itxia aukeran. 649 895 858
- Urbarteko auzoan Atsokabar erresidentzia frentean garaje marra bat alokatzen da. 943 364 169. (Gabriela)
- Garajea alokatzen da Atsokabarren, Garaikoetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. 943 365 476 / 659 021 945

Salerosketak

- 3-4 urteko umearentzat bizikleta bat eta panpinak eramateko karririkotxa erosiko nituzke. 617 58 40 95

Lan-eskaria

- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. Harremanetarako 943 404 015 edo 606 661 048 zenbakira deitu, Doris.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka arratsaldean etxeo lanak, garbiket, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Emakumea eskaintzen da etxeo lanak egin, haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. Interna edo orduka. Harremanetarako, 673 510 914.
- Mutil gazte arduratsu, alai eta esperientzia-duna umeak zaindu, eskolako lanetan lagundu, klaseak eman edo/eta etxeo lanak egiteko eskaintzen da. Bai atsegun, bai jai egunetan.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Aran Ruiz Martori, azaroaren 1ean.
- Markel Perez Manso, urriaren 27an.
- Izaro Beloki Mateos, urriaren 27an.

Heriotzak

- Ciro Garcia Palza, azaroaren 4an, 60 urte zituela.
- Dionisio Miguel Garcia, azaroaren 1ean, 87 urte zituela.
- Miguel Angel Bengoechea Telleria, azaroaren 1ean, 82 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 8 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 9 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 10 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 11 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 12 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 13 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 14 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Telefonoa: 687 303 893

- 45 urteko emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. 647 315 612
- 32 urteko neska batek interna bezala lana bilatzen du, pertsona nagusiak zaintzen. 638 187 124.
- Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 617 761 423.
- Emakumea eskaintzen da garbiketan lan egiteko. Aukeran nahiago interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. Harremanetarako 659 064 188

Lan-eskaintza

- Emakume euskalduna behar da edadeko pertsona zaintzeko. Astelehene ostiralerako, 10:00etatik 13:00etara. Harremanetarako telefonoa: 650 678 772.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDAI.A

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea
Etzagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maitu Armuti,
Aser Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

EMAKUMEAK

Egitarau berezia azaroan

Emakumeen zentro zibikoak egitura berria estreinatuko du

Azaroaren 25ean Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da. Honen aitzakian eta berriki berrantolatutako Emakumeen Zentro Zibikoan gertatu diren aldaketen lehen pausoak erakusteko, hilabete osoan zehar hainbat ekintza egingo dira. Lehenengoa asteazkenean egin zen, "maitasun erromantikoaren inguruko tailerra".



Lehenengo ikastaroa asteazkenean egin zuten maitasunaren inguruan hausnartuz.

TXINTXARRI

Udalak Emakumeen Zentro Zibikoan aldaketa garrantzi-tsua egin ditu, besteak beste izena ere aldatu zaio aurrerantzean Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroa izango da. Laster aurkeztekoak dira bertan egindako guztia baina dagoeneko teknikari berriak lanean dira eta azaroan zehar hainbat dira antolatutako ekintzak. Aitzakia azaroaren 25a hartuta, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, hitzaldiak eta tailerrak izango dira, denak irekiak.

Asteazkenean "¡Ay amor, amor! No me quieras tanto y quíereme mejor" Myriam Herbon-ek gidatu zuen ikastaroaren lehen zatia izan ere, honakoak jarraipena izango du datorren asteazkenean. Maitasun erromantikoaren inguruko tailerra da eta bertan emakumeek maitasunare-

kin duten harremana aztertuz. Horretarako zinema, literatura izan zuten hizpide lehenengo saioan.

Azaroaren 15ean 19:30etan helduentzako antzerki emanaldia izango da "Madameren cabareta" Sexuen arteko bizikidetzarako emakumeen zentroko antzerki taldearen eskutik. Honakoa Manuel Lekuonan izango da eta sarrera gonbidapenarekin izango da.

Azaroaren 19an berriz, zine foruma egingo da Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan 18:30ean. Honetan Derc Cianfrance-en "Blue Valentine" filma ikusi eta eztabaidatzeko aukera izango da berdintasun teknikari batek gidatuta.

Egitarauarekin jarraituz, azaroaren 22an 19:00etan Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroaren aurkezpene ekitaldia egingo da. Irekia izango da eta ondoren

Araetan afaria, dantza eta Dja. Afariaren prezioa 22 eurokoa da eta emakume zentroan izena eman beharko da aurretik.

Azaroaren 23an 11:00etan haurrentzako ipuin kontalaria saioa egingo da "Bizarurdinak" 4 eta 8 urte arteko umeentzako haur liburutegian. Maite Franco ariko da kontalaria.

Astelehenean, azaroak 25, 19:00etan emakumeenganako indarkeriaren aurkako elkarretaraztea egingo da Okendon.

Ekintza egitarau bereziari amaiera emateko abenduaren 14ean, larunbata, Lasarte-Oriako emakume gazteei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra izango da Emagin elkartearen eskutik. 16 eta 30 urte arteko emakumeentzat da ikastaroa eta Gazteleku burutuko da 10:00-14:00 eta 15:30-19:30 bitartean.

IRTEERA

Oinatz igandean Amaiur eta Bertizera

Asteleheneko TXINTXARRI-n argitaratu genuen Oinatzten irteera larunbatean zela. Informazioa oker zegoen eta irteera igandean izango da azaroaren 10ean.

Oraindik izen eman nahi dutenek aukera izango dute gaurko egunean zehar. Igandean hitzordua goizeko 10:00etan egin da Jalgin. Bertzeko parketa abiatuko dira eta ostean Amaiurrera.

ABESTIA

Pirritx eta Porrotx Realarekin

Real Sociedad Fundazioa eta Irrien Lagunak zenbait hilabete eman dituzte elkarlanean, hain zuzen pasa den ekinean ospatutako Real Sociedad Fundazioaren Eguneak. Elkarlana akordio batean jaso dute eta honetan hainbat ekimen bultzatuko dituztela adostu dute. Lehen ekimenetako bat "Itsaso Txuri-Urdina" kanta izan da, Anoetan ikusi eta entzun ahal izan zen Osasunaren aurkako partidaren atarian aurrenekoz.

"Itsaso Txuri-Urdina" lehen taldeko jokalariek eta nesken taldeko ordezkariak batek abesten dute, eta baita beste artista ezagun batzuk ere, Amets Arzallus bertsolaria, Aiora Zulaika (Pirritx) eta Orfeoi Txikia, besteak beste.

Abestiaren CD-a dago salgai Anoetako tabernetan eta Realeko bi denda ofizialetan. Ekimena ostiralean aurkeztu zuten eta bertan izan ziren herriko jalgune elkarteko kideak ere. Koroak egiten lagundu dute gazteek kanta honetan.



AMARAUN

Magia ikastaroa ludotekan

Magia ikastaroa antolatu da Amaraun Ludotekan HH5, LH1 eta LH2ko umeentzat. Honakoa azaroaren 13an hasiko da eta abenduaren 11ean egingo dute azken saioa. Asteazkenean izango dira saioak 17:45etik 19:15ak arte.

Matrikula Ttakuneko bazkideentzat 13 eurokoa izango da eta bazkide ez direnek 16 euro ordaindu beharko dituzte. Izan-ematea Ttakuneko bulegoan egingo da.

ALBOKA

Abesbatza pozik Kataluniako bisitan

Alboka Abesbatzak harrera ezin hobea izan zuen Bartzelona aldean, zehazki, Sant Esteve de Sesrovières herrian. Bi herrietako abesbatzek egindako elkartrukearen barruan kokatu da bidaia.

Larunbatean, Montse Latorrek zuzendutako abesbatzak "Agurra", dantzari eta guzti, eskaini zuen kontzertuari hasiera emateko. Jarraian, polifonia eta folklore doinuak izan ziren Sant Esteveko elizan nagusi, hala nola, Pau Casalesek ezaguna egin zuen "El cant des ocells". Abesbatzak Amaia Dorronsoro piano jolearen laguntza izan zuen hainbat doinuetan. Amaieran, Lasarte-Oriako taldeak txalo zaparrada handia jaso eta Junkal Guerrerok moldatutako "Mutil txaleko gorri" eta "Agur Jaunak" abestiak eskaini zituen eskertzat.

Montserrat-eko monastegia ezagutu eta bertan abesteko aukera izan zuen herriko abesbatzak ere. Julio Dominguez "Ave Maria" eta Aita Donostiaren "Virgo dei genitrix" izan ziren eskainitako lanak.



Blas de Lezo kaleko lanak hasi dira

Blas de Lezo kaleko lanak martxan dira eta bi hilabete-ko iraupena izango dute. Lasarte-Oriako Udalak 193.800 euro ditu lanak burutzeko.

Datozen bi hilabeteetan "Blas de Lezo atzealdeko kalea itxita egongo da Michelingo aparkalekuaren filrazioak ekiditeko eta aparkaleku berrantolatutako bertan egingo diren eraberritze lanak direla eta" horrela eman du ezagutzera Udalak asfaltatutako egiteke zituen lanak hasi dituela.

Herriarren eskaera

Kale honetako aparkalekuaren arazoa salatu ondoren, konponketa hauek herriarren eskaera izan dira denbora luzez.



Blas de Lezo kalean lanean ari dira dagoeneko. Konponketa ugari egingo dira.

Udalak konponketa hauek egingo zituela agindu eta atzerapenarekin izan bada ere, dagoeneko konponbidea martxan dela azpimarratu du.

Obra guztia beste 12 enpresen artean lehiaketa publiko bidez esleitu zaion Morga S.L. enpresari egingo du.

Hauekin bizilagunek espero

dute orain arteko arazoak konpontzea eta pozik azaldu dira lanen hasierarekin "obra guztiak dira deserosoak bizilagunentzat baina kasu honetan oso beharrezkoak ziren eta bukatzean askoz hobeto egongo da ingurua. Espero konponketa ona egitea" azaltzen zigun bizilagun batek.

"Nor garen esaten duena hizkuntza da"

Lorea Agirre antropologoak euskarari buruz hitzaldia eman zuen Villa Mirentxun

Lore Agirre kazetari eta antropologoak euskararen inguruko hainbat hausnarketa egiteko aukera eskaini zien asteazkenean Villa Mirentxun elkartu ziren herritarrei. Euskararentzat halako hitzaldiak arnasguneak direla azpimarratu zuen eta euskaldunok hausnarketarako tartea hartzeak duen garrantzia mintzatu zen besteak beste. Izan ere hizkuntza gutxitu bateko hiztun komunitateak aurrera egiteko beharrezkoa baitu hizkuntzarekiko kontzientzia, euskara bizitzako esparru guztietara eramateko.

Maidar AZURMENDI

Herriko hainbat elkar-tek antolatuta, Lorea Agirre kazetari eta antropologoaren hitzaldia izan zen asteazkenean. Honek hizkuntzaren inguruan hausnartzeko aukera ekarri zuen. Hasteko aipatu zuen euren lanetako bat izan dela Lasarte-Orian, nola eta zergatik gertatu den euskararen berreskuratzea aztertzea. "Hortik ideia batzuk bildu eta antzeko egoeran dauden gunetan aplikatzen saiatu gara. Komunitate batean arrakastatsua dena beste batera zuzenean eramatea ez da hain sinplea eta ez du zertan funtzionatu behar".

Halako hitzaldiak garantzia dutela azpimarratu zuen, "hizkuntzaren bueltan biltzen bagara bi arrazoi daude, batek inoiz gure buruari galdetu diogulako zergatik gure seme alabak izan behar diren euskaldun. Eta bestetik, zergatik planteatzen dugu galdera hori? Ba gurea hizkuntza minorizatu bat delako, erdal-dun batek ez du halakorik planteatzen ez du pentsatu behar seme-alabei zein hizkuntza pasako dien".

Hizkuntza gutxituaz hitz egitean, "ez du esan nahi hizkuntza bera gutxiago

denik, hizkuntza guztiak berdinak dira, aldatzen dena da egoera. Munduan barrena gehienak dira hizkuntza gutxituak, oso gutxi dira indartsu daudenak. Hizkuntza minorizatu bat, hiztun komunitate gutxitu batean aurkitzen da".

Baina zer da hizkuntza? Zergatik tematu hizkuntzarekin? "Komunikatzeko tresna bat da, taldean hitz egiten da, talderik ez badago, hizkuntza ez da. Hizkuntzarekin jaso dugu kultura guztia eta bakoitzak du bere jende multzoa arautzeko modua".

Agirreraren ustetan kontutan izan behar da hizkuntzaren bitartez egiten dugula dena, gure buruan ideia batzuk sortzen ditugunean ere hizkuntza batean sortzen ditugu.

Euskara salbatu

Euskaldunen kasuan "identitate zeinua hizkuntza erabili dugu". Munduan ez dela kultura askotan gertatzen azaldu zuen, egoera minorizatu batean dagoen kulturen kasuan, bidean hizkuntza galdu dutenak daude eta sinesmenak, folklorea... salbatu dituztenak. "Gure kasuan hizkuntza gorde dugu eta bide horretan beste elementu batzuk galduko genituen". Irlandako kasua aipatu zuen



Joxe Mari Agirretxe herritarrek aurkeztu zuen Lorea Agirre Villa Mirentxun.

idea hau azpimarratzeko, han nortasuna erlijio katolikoan oinarritu dute, nahiz eta ateak izan, beraie zeinu identitarioa erlijioa da, eta hizkuntza ia galdu dute.

"Gure kasuan gaur egun arte ekarri dugu euskara eta erabaki dugu gure ondorengoei pasako diegula. Gu nor garen esaten duen elementu nagusia hizkuntza da. Euskara jendea da, gu gara. Guk eraman dugu euskara goazen lekura, edozein lekutara, tabernara, lanera, aisialdira... eramaten dugun heinean bada eta guk eramaten ez dugun heinean ez da izango".

Hizkuntza guk eramaten dugunez Agirreraren ustez gure baitan ere bide bat egiten du hizkuntzak horregatik "landuago, erabilgarriagoa, gozagarriago izanda, esparru gehiago hartuko ditu".

"Euskara salbatuko dugu hemen eta orain, hala nahi badugu". Euskara erabakitzeko dugunean hizkuntza eramaten dugula dio Agirrek "ni banaiz nor halako lekura joan eta euskaraz eskatuta gutxie-

nez kaso egin diezadaten eta errespetu minimo batekin trata nazaten". Berdin jokatu behar da modu kolektiboan. Egoera honetara eramaten duen prozesuan kontzientzia dago. "Azken 50 urtetan euskarak aurrera egin badu kontzientzia horregatik izan da". Eta kontzientzia hori izatea beharrezkoa da hizkuntzaren erabilera sortzen diren oztopoen aurrean aurre egiteko gaitasuna izateko, hizkuntzaren defentsa mekanismoak izateko.

Gozagarritasuna litzateke kontzientziaren beste aldea. "Hizkuntzaren elikagai sinbolikoa kultura da. Lasarte-Orian, kulturaren inguruan sortu dituzten ekintza guzti horietan, egiten duzuen bide hori, kulturaren bitartez hizkuntza eraberritzen duzue. Izan ere, hizkuntza minorizatu baten kultura alorrean egiten den edozer, automatikoki hizkuntzaren eragile, bultzatzaile bihurtzen da".

Normalizazioaren bidean

Hizkuntza ez da galtzen beste

hizkuntza bat komunitatera datorrelako Agirreraren iritziz, "herri batean nahikoa dira hiru lagun herri euskaldun bat erdalduntzeko, epailea, apaiza eta medikua. Hiru eta boterearekin".

Kanpoko jendea datorrenean konfliktu bat dagoela onartzen du Agirrek eta horregatik hizkuntza irizpidetzat edukitzea inportantea da gizarte esparru guztietan. Egiten diren politika guztietan kontutan hartzeko elementua dela defendatzen du. Horrek bermatuko luke arriskuan dagoen hizkuntza zaintzea. Hizkuntza ahul hori indartu dadin eremu babestuak sortuz.

Azken galdera bat plazartu zien entzuleei, "zalantzetako bat da ez ote dion gizarte lehiakor honek galda jartzen hizkuntzari? Ez al genuke gizarte hau aldatu behar berdinazaleagoa izan dadin?".

Entzuleek aukera izan zuten Loreari euren kezak azaldu eta hainbat gogoeta egiteko.

Baserriko produktuen azoka bihar Okendo plazan

Aza, porru, piper, arbi, zerba... udazkeneko produktuen erakustoki bihurtuko da bihar Okendo plaza. Lasarte-Oriako Udalak Behemendi Landa Garapenerako elkartearen laguntzaz, bihar 10:00etatik 14:00etara Baserriko produktuen azoka berezia antolatu du.

Eremuko eta Gipuzkoa osoko 15 ekoizlea izango dira azoka berezi honetan. Esnekiak, barazkiak, garaiak landareak, txerriak, ahatekiak, fruituak, ogia... denetarik izango da Lasarte-Oriako herritarrek produktu freskoak eta bertan ekoiztutakoak eros ahal dituztenak.

Eta gurasoek erosketak egiten dituzten bitartean, haurrek jokoetaz gozatzeko aukera izango dute.

Lehenengo sektorea sustatu

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, iaz egindako azterketa sozioekonomikoan, lehen sektorean beherakada handia izan zela ikusi zen.

Honen ondorioz, lehen sektorea indartzeko hainbat ekimen burutzea pentsatu zuen, azoka bereziak tartean.

Baina nekazaritza eta landa ekoizpenari laguntzeaz gain, asteburuko ekintzak eginez,

herriko merkatarien egoera ere indartu nahi du Udalak.

Behemendi Elkarteak, aldiz, 2002 urtean baserriko produktuen feriek bizi zuten beherakada ikusita, ekimen honi antolatzeari ekin zion. Izan ere, azoka hauen helburu bakarra da nagusia baserriko produktuen salmenta bideak sustatea da.

Gainera, Behemendi azpimarratzen duenez, tokian tokio dendarientzat ere baliogarriak dira azoka hauek, "eskaintzen diren produktuak ikusi eta gustukoak badira ekoizlearekin zuzenean harremana egin dezaketelako".



Eremuko nekazariak barazkiak eta produktuak saltzeko aukera izango dute.

ARETO-FUTBOLA.

Areto-futboleko txapelketa gaurtik aurrera

Ekainaren 13ko asteburuan izango da final handia eta kopa ekainaren 20ko asteburuan jokatuko da

Ostadar SKT-k antolatzen duen herriko areto-futbol txapelketako lehen partidak jokatuko dira asteburu honetan. Aurten hamabi talde izango dira lehia bizian. Berrikuntza gutxi izango diren arren, handiena antolatzaile aldaketa izango da.

Nerea EIZAGIRRE

Gaur, arratsaldean Izarra Bitxitegia eta Urdaneta H.K. taldeen arteko norgehiagokarekin hasiko da Herriko areto-futbol txapelketa. Antolatzaile berriarekin, David Ferrerorekin izan gara lehiaketari buruz gehiago jakiteko.

Aurtengo denboraldian hamahiru talde izano dira lehian eta horien artean, iazko bi talde finalistak daude, Buenetxea eta Txindoki tabernak.

Hauetaz gain, Izarra bitxitegia, Viña del Mar, Izkiña taberna, Trumoi taberna, El Punto taberna, Balerdi Harategia, Indaux, Ilargi taberna, Urdaneta H.K., Arkupe taberna eta Aritzta tabernak parte hartuko dute norgehiagokan.

Bi itzuli eta finala

Talde kopurua dela eta, joan eta etorriko txapelketa izango dela aipatu du Ferrerok,

“multzo txikia da eta taldeek jokatze gogoak dituztela adierazi dute. Horregatik, bi itzuli egitea erabaki zen”.

Partidak ostirala eta larunbatetan jokatuko dira. Baina eguraldi txarra eginez gero, areto-futboleko kantzaren baldintzen arabera partidak egunez aldatzea aurreikusten dela jakin arazi du, “gertatuko da, euria eginez gero, kondentsazioak eta euriak ez digute jokatzen utziko. Eta ez gara arriskatuko”.

Era berean, partida horiek igandeetan jokatuko direla azaldu digu, “igandea libre uzten da atzeratutako partida baldin badago. Era honetara, asteburu berean taldeek bi partida jokatu ahal izateko. Hau da, ostiralean bat jokatu eta igandean bestea”.

Bi itzulien ostean, ohi den bezala, sailkapeneko lehen zortzi taldeek play offak jokatuko dituzte eta gainontzeko lauek kontsolazioa.



Areto-futboleko kantzaren berritako partida interesgarriak ikusteko aukera izango da.

Era honetara, “guztia ongi badoa eta egutegian aldaketarik ez badago, finala ekainaren 13an izango da,” onartu du Davidek.

Kopa

Bestalde, lehiaketa amaitu eta aste betera, ekainaren 20ean kopa lehiaketa edo Mosso oroimenezkoa jokatuko dela jakitera eman du.

Honek, aurreko denboraldiko sistema berdina izango du, “guztia asteburu batean jokatuko da”.

Davidek adierazi digunez, “oraingoz talde guztiek kopa jokatuko dute. Baina izan daiteke talderen batek ez jokatzea erabakitzea, jendea falta zaiolako edo. Hala ere, talde guztiak egon daitezten saiatuko gara”.

tzea erabakitzea, jendea falta zaiolako edo. Hala ere, talde guztiak egon daitezten saiatuko gara”.

Aldaketak

Nahiz eta kudeatzailea berria izan, antolakuntza edo araudi aldetik berrikuntza handirik izango ez dela azpimarratu du.

Davidek azaldu duenez, aldaketa bakarra dago, asteazkeneko bilera kenduko da. “Urte hasieran egutegia egin du. Aldaketak egon daitezke hauetan, eskolarteko edo bestelako txapelketak direla eta. Baina bestela, ordutegia finkoa mantentzen saiatuko gara”.

Arauei dagokionez, “zigorak ez dira hain gogorrak izango hasieran” onartu du. Hau da, lehenengoz arauetako bat hausten bada, permisiiboak izango dira. Baina hau behin eta berriro errepikatzen bada, zigorrak ezarriko dira.

“Arauek bete behar dira eta horrela izatea zainduko dugu. Jendeak gozatzea eta taldeen arteko lehia zelaian geratzea nahi dugu. Helburua, berriro ere, herri txapelketa potentzia izatea da, talde batzuk egotea, lagunaren artean jokatutako txapelketa izatea, elkar ezagutzea...” onartu du.

Laguntza

Era berean, txapelketa aurrera eramateko laguntza izango duela azpimarratu du, “aurreko antolatzaileen eta beste taldeetako kideen laguntza dut logistika edo edozein gai dela”.

Hala ere, “epaile eta mahai lanak beste taldeetako jendea dago. Baina guztiak gaude baldintzatuak lana dela, partidak direla... Horregatik, laguntza guztia ongi etorria izango da, kudeatzeko, publikitate egiteko, sare sozialetan laguntzeko...” adierazi du azkenik.

KIROL AGENDA.

FUTBOLA

Larunbata 09

Igartza, Beasain, 10:00etan

Beasain-Ostadar *Infantil Txikia*

Michelin, 10:15ean

Ostadar-Usurbil *Jubenilen Ohorezko maila*

Igartza, Beasain, 11:45ean

Beasain-Ostadar

Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Michelin, 14:00etan

Ostadar B-Ekintza *I. Kadetea*

Michelin, 15:30ean

Texas Lasarte-Asoleus

I. Erregionala

Michelin, 17:15ean

Ostadar-Hondarribi

Erregional Ohorezko maila

Igandea 10

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Usurbil *I. infantil*

Herrera, Donostia, 10:15ean

Sporting de Herrera-Ostadar

I. Kadetea

Michelin, 11:30ean

Ostadar-Allerru *Emakumezkoen Liga*

Mendibeltz, Orio, 12:00etan

Orioko-Ostadar *B I. infantil*

Altamira, Ordizia, 12:45ean

Ostadar-Ordizia *I. alebina*

Michelin, 13:15ean

Ostadar-Sporting de Herrera

I. Jubenila

Berio, Donostia, 13:45ean

Sto. Tomas Lizeoa-Texas Lasarte-Usurbil

I. Jubenila

Berio, Donostia, 17:45ean

Eas 08-Ostadar *I. Erregionala*

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 08

Herriko Txapelketa

19:45ean, Izarra-Urdaneta H.K.

20:45ean, Trumoi-Izkiña

Harripila pilotalekua, Legorreta, 21:30ean

Bilkoin Legorreta Eredus-Isu

Leioak *Gipuzkoako Liga*

Larunbata 09

Herriko Txapelketa

09:15ean, Balerdi Harategia-El Punto

10:15ean, Viña del Mar-Buenetxea

11:15ean, Ilargi-Indaux

12:15ean, Arkupe-Txindoki

Kiroldegia, 18:00etan

Aldaz H.K.-San Jorge Santurtzi

Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 09

Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT-Arri BKL

Nesken kadete maila, errendimendua

PILOTA

Larunbata 09

Kiroldegia pilotalekua, 16:00etan

Intza-Bergara

Eskuz binaka bikotea, II. kadetea

Ezker hormako txapelketa

Kiroldegia pilotalekua, 16:00etan

Intza-Zazpi iturri

Eskuz binaka bikotea, I. Jubenila

Ezker hormako txapelketa

ATLETISMOA

Larunbata 09

Hernani, 10:30ean

Sasoeta eta Landaberri ikastetxe

gatzetxoek alebin eta infantilen

pistako eskolarteko proba dute.

Igandea 10

Behobia, 10:00etan

Herriko hainbat atleta Behobia-

Donostia lasterketan izango da lehian.

DUATLOIA

Igandea 10

Murgia, 11:00etan

Herriko hainbat atletek Murgiako

mendi duatloian parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 09

Usabal kiroldegia, Tolosa, 10:00etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior

eta senior mailako igerilariak

Errendimendua eta Parte-hartze

ligako jardunaldia dute.

JUDO

Larunbata 09

Jostaldi kiroldegia, Hondarribi, 09:30ean

LOKEko Fermin Balda eta Oscar

Garrido kadeteek Espainiako

Superkopako jardunaldian parte

hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 09

Atsotak, 11:00etan

Buruntzaldea txirrindularitza eskolako

infantil eta alebinez saioa dute.

Arbulo, Araba, 11:00etatik aurrera

Buruntzaldea txirrindularitza

eskolako junior eta kadeteak

Arbuloko zirkloko proban parte

hartuko dute.

Igandea 20

Elorrio, Bizkaia, 11:00etatik aurrera

Buruntzaldea txirrindularitza

eskolako junior eta kadeteak

Elorrioko zirkloko proban parte

hartuko dute.

ERRUGBIA

Larunbata 09

Asti, Zarautz, 09:30ean

Beltzak Ostadar Jalai-Ordizia

Eskolarteko infantilak

Asti, Zarautz, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai-Bera Bera

Eskolarteko infantilak

Asti, Zarautz, 11:30ean

Beltzak Ostadar Jalai-Bera Bera

Infantil federatua

Michelin, 12:10ean

Beltzak Ostadar Gure Etxea-

Irun Baztan

Euskal Liga, kadeteak

Agenda

Larunbata 9, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Akordeoi doinuak Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako Akordeoi jaialdiaz gozatzeo aukera izango da. Zero Sette Akordeoi orkestrarekin batera bakarlariak izango dira Manuel Lekuona arteo nagusian. Jokin Goenaga herritarra, Iñaki Dieguez irundarra eta Arrigo Tomasi akordeoi jole ezaguna etorriko da. Honek Daniel Levy perkusionistaren laguntzaz hainbat doinu eskainiko ditu. Sarrera, 3 euro. 16 urte azpikoek doan.

Bakarriketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 9, 00:00etan

"El txou de Patxi" umorezko bakarriketa izango da. Gaztelaniaz.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 12, 18:00etan

Pello Añorga ipuinen mundu zoragarrian murgilduko ditu 4, 5 eta 6 urteko haurrak.

Genero indarkeria

EMAKUMEEN ZENTROA

Asteazkena 13, 18:00etan

"¡Ay, Amor amor! No me quieras tanto" maitasun erromantikoaren inguruko tailerra eskainiko du Myriam Herbonek.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 15, 19:30etan

Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki taldeak "El cabaret de Madame" antzezlan eskainiko du. Doan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Azaroan zehar

"Euskal Jaiak" argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

Bestelako

OKENDO PLAZA

Larunbata 09, 10:00etatik 14:00etara

Baserri azoka egongo da. Produktuak eta elikagaiak erosteko aukeraz izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 10, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Zipi y Zape y el club de las canicas" filma ikusi ahaliko dute gaztetxoek. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz

Igandea 10, 19:30etan

Helduei zuzendutako zinea, "Amour" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Okendo Zinema Taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 8,

23:00etan

"Los Gandules"

taldeak bere azken diska aurkeztuko du. Sarrera, 10 euro. Ondoren, "Sugar devils" dj-aren saioa

Larunbata 9, 21:30etan

"The Animal Within" taldeen kontzertua eta talde gonbidatu batez gozatzeo aukera. Ondoren, "Cigoto" dj-aren saioa.

Ostirala 15, 23:00etan

Esne Beltzako "DZ" dj-aren saioa.



Larunbata 16, 21:30etan

"Glaukoma" eta "Humus" taldeen kontzertua. Sarrera, 5 euro. Ondoren, "Ni-Mu" dj-aren saioa.

ORBELA BELARDENDA

Ostirala 08,

20:00etan

"Soul Kitchen" taldearen soul eta funk doinuak gozatzeo aukera izango da.

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 16, 20:00etan

"Azkairer Pelox"-en rockabilly eta blues doinuak entzungai izango dira.



Herritarren txokoa

Ingeles Mintzapraktika

Ingelesa ikasten ari garen lagun talde bat gara eta astean behin ikasitakoa praktikan jarri nahi dugu.

Ingeles maila ertaina edo gehixeago baduzu eta zuk ingeles mintzapraktika nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan, solaskideinglesa@gmail.com.

Animatu eta ea talde polit bat osatzun dugun!

63an jaiotakoaren afaria

1963an jaiotakoaren afaria egingo da Dana Onan azaroaren 16an. Hitzordua 21:00etan da Okendo plazan pote bat hartzeko. Menua 36 eurotakoa da eta Euskadiko kutxan sartu beharko da dirua egun hori baino lehen. Honako kontu zenbakian 3035 0036 17 0360084931.

Harremanetarako 696 914 566 edo 620300579 zenbakietara deituta.

62an jaiotakoaren afaria

1962. urtean jaiotako lasartearentzat afari bat antolatu dugu azaroaren 16rako, larunbata, Zaldia jatetxean.

Interesatuak 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 9rako,

honako kontu korronte zenbakian, 3035 0036 17 0361131315.

Argibide gehiagorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu).

Usurbilgo Lanbide eskolako titulua

Usurbilgo Lanbide eskolak jakin arazten du, 2012 urtean erdimaila eta goi mailako ikastaroak amaitu zituzten ikasleek haien titulua jasotzera hurbildu daitezkeela eskolara. Tituluak Lanbide eskolako bulegoan jasoko dira, goizetan 9:00etatik 14:00etara.

Lasartearra elkarteak loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten die Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela dagoeneko.

Hauek eskuratzeko, elkarteak egotzara, Erribera Kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira interesatuak.

Eskutitza

Lasarte-Oria eta txakur kaka

"Animaliak edukitzeko eta babesteko ordenantza Munizipala" moldatu da dagoeneko. Lerro hauetatik nahiz eta proposamen berria aurrekoa baino permisiboagoa izan, araudia hobetu daitekeela uste dugula ohartarazi nahi diegu Udala eta herriko txakurren jabeak.

Horretarako herriko talde batek aste honetan eskaera bat sartuko du Udal erregistroan arauaren hobekuntza lortzeko asmoarekin. Eskaerarekin batera ahal den sinadura kopuru handiena aurkeztu nahi da.

Partehartzea hal den handiena izatea eskertuko genuke. Txakurrak eta haurrak dituzten familiak kontuan izatea nahiko genuke edo urritasunen bat izateagatik arautu diren lekuetara hurbildu ezin diren pertsonak.

Azkenik, guztiok nahi dugu herri garbia... edozein zikinker mota dela ere. Gure txakurren eskubideen alde.

Eskaera sinatu nahi duten herritarrek lau lekuetara jo dezakete: Cannes, Zoomania, Iskiña estankoa edo Albaitaritza klinika.

Zuen oharra jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Herritar talde bat
Erredakzioan itzulia

Mikel Martija Eibar Kirol Elkarteko harrobiko kudeatzailea

"Eragin handia dute nire erabakiek"

Eibar kirol taldeko harrobia kudeatzen du lasarteoriatar gazteak

Mikel Martijak Ostadar SKT-ko Erregional Ohorezko mailako taldea utziko zuela jakitera eman zuen denboraldia eman baino lehen. Denboraldi bukaeran Eibar Kirol elkartek eskaintza egin zion entrenatzaile izateko. Baina entrenatzaile izatek, harrobiko kudeatzaile izatera igaro zen hilabetea.

Nerea EIZAGIRRE

Lehenengo asteburuan Euskal Ligan Ostadar eta Eibaren arteko partida izan zen. Egun berezia Mikel Martija herritarrentzat, izan ere, ekainera arte Ostadarreko entrenatzaile izan zen eta egun Eibar Kirol elkarteko harrobiko kudeatzailea da. Harekin izan gara aldaketa eta bere lanari buruz gehiago jakiteko.

Nola jarri zen Eibar harremanetan zurekin?

Denboraldia bukatu aurretik ez jarraitzeko erabakia hartu genuen. Denboraldia amaitu eta orduan, Eibar agertu zen Kadete mailako entrenatzaile lanak egiteko eskaintzarekin. Ohorezko mailan zehazki. Bilerarekin bat egin eta aukera ikusi nuen. Hiru entrenamendu astean, partida

Eta behin barruan nengoela han zegoen harrobiko kudeatzaileak Realak fitxatu eta Fran Garagarza kirol zuzendariak niri proposatu zidan postu hori.

Ez al zintuen bat bateko aldaketa horrek harritu?

Harritu ninduen, bai. Ez ninduten hainbeste ezagutzen horrelako kargu baterako. Fran Garagarzak niregan apustu egin zuen, nire alboan izan dudana jendeari galdetuz. Oso eskertua nago momentu horretan Frani niri buruz eta nire lanaz hitz egin ziotenei.

Ez da berdina talde baten ardura ematea edo talde guztien kudeaketa eskaintzea. Aldaketa izan daiteke %100 klubean sartzen zarena.

Nik egia esan lan hau oso gustura egiten dut. Futbolariekin zer ikusia duen edozer oso gustura egiten dut. Gauza asko egin behar ditut, buruari buelta asko eman, dedikazio handia izango da, baina hau ere aurrera ateratzeko asmoa dut. Azken bi urteetan nire neurria hartu dut.

Futboleko pausoak eman nahi ditut, gustuko dudalako, baina lasaitasunez, ez dut etorkizunean luzera begiratzen. Momentuaz baliatu eta gauzak era hoberenean egin eta gozatu. Hortan datza ezta? Egiten duzun naz gozatzea, nahiz eta dedikazio handia izan.

Zergatik uste duzu aukeratu zintuztela?

Azken bi urteak erreferente bat izan dira, nire aldetik jarri dudana existentzia handia izan da, ez klubak eskatuta, nik horrela nahi nuelako baizik. Aukera aproposa ikusten nuen gauzak egiteko, tresnak zeuden lan egiteko.

Ongi atera zen eta ispilu bat izan daiteke etorkizunerako eman behar ditudan pausoak zehazteko. Nire ustez bi urte horiek gabe ez litzateke posible izango Eibarrek ni aukeratzeko.

Zertan datza zure lanak?

Harrobiko kudeatzailea naiz. Talde guztiak kordinatzea da nire ardura, haien errendimendua kontrolatzea, entrenatzaileekin feed-back-a izan, han dagoen metodologia ere nik gainbegiratu behar dut.

Bestalde, hurrengo denboraldia begira, Eibar aldeko taldeen maila ikusi eta aztertu behar dut.

Taldeetan izango diren bajak, bai utziko dutelako edo maila ematen ez dutelako, ordezkatzeko beharrezkoak diren jokariak aukeratu behar ditut. Ikuskatzaileak daude lana murritzen digutenak, baina azkeneko erabakia edo hitza nik eta Franek daukagu. Honela hurrengo urterako taldeak sortzen goaz.

Zenbat talde daude Eibar kirol elkarteko harrobian?

Zazpi talde daude. Bi jubenil bata Ohorezko mailan eta beste Euskal Ligan; bi kadete bat Euskal Ligan Ostadarren aurka lehiatu dena, bestea Ohorezko mailan; infantil ohorezko mailan ere beste bat eta infantil txiki eta partehartze mailako alebina.

Bestalde, futbol eskola dago honetan 1. urteko alebinak eta benjaminak daude, 2003-2005 urteko haurrak. 2005 eta 2004

urtekoen saioetan partehartzea sustatzen da eta 2003 urtekoekin hurrengo urtera begira aukeraketa bat egin behar da. Adibidez 40 jokari ditugu eta horietatik hurrengo urtean 16 jokari alebin mailako taldera igoko dira.

Ardura handia beraz...

Bai, ektura hori guztia nire ardura dago. Arlo guztietan, arazoak edo gauza teknikoak baldin badaude.

Azken horiek dira niri gehien gustatzen zaizkidanak, partidaren analisiak, jokari bakoitzaren errendimendua aztertzen da... Izan naizen beste taldeetan, Ostadarren esate baterako, ez dut hori izan. Beti izan da orokorra eta Eibaren zerbait oso espezifiko da. Taldeak funtzionatu behar du, baina jokari bakoitzak ere bere lana du.

Gure harrobiko lana horretarako da, saiatu behar gara, gure lehen taldearentzat jokariak prestatzen. Baina oso zaila da.

Zergatik diozu zaila dela?

Zaila da lehen talde bigarren mailan dagoelako eta bertan maila altua delako.

Gainera, lehenengo urtean, hirugarren maila zegoen taldea kendu zuten. Bigarren talde horrek jubenil eta lehen taldearen arteko jarraipena egiten laguntzen zuen. Taldeak ekonomikoki gauden egoera kontuan izanik, neurri batzuk hartu behar izan zituen eta hori izan zen horietako bat.

Nire ustez aukera hori nahiko txarra da harrobiarentzako. Baina klubaren etorkizuna horren baitan bazegoen aproposa zela iruditzen zait.

Entrenatzailetik kudeatzaile-

ra... aldaketa handia izan al da?

Aldaketa batean sartu eta partidak aurreko sentsazio eta urduritasun hori ez daukat. Nire ondoan dagoen jendeak eskeretzen du. Horrekin bizitzea tentsio handia baita.

Baina beste aldetik asko jasotzen dut, alde teknikoan dabilen jendearen lana ikustea oso aberastea du. Batek bestea konpentsatzen du.

Bestetik ardura eta eragina dut. Esate baterako, nire erabakien eragina izan daiteke jokari bat hurrengo denboraldian Eibaren ez egotea eta bere ilusioa kentzea.

Bestalde, talde bigarren mailan izatea, beraiekin harremana izan... Horietatik ere ikasi ahal izatea niretzako oso aberasgarria da.

Entrenatzaile izateari uko egongo al diozu?

Beti esaten dut ez dudala entrenatzaile arlo hori utziko, izan ere futbol begiratzen dudanean entrenatzaile baten begiratik begiratzen dut. Baina orain perspektiba beste bat izan behar da. Orain gehiago da jokariaren errendimendua baloratzea, errendimendu hori nola hobetu eta nola aztertu...

Gainera Eibarren ere metodologia ere landu daiteke, nola entrenatu, zer egin, sesioak nola prestatu... Hor ere eskua sartzeko aukera izango dut. Eta futboleko zure itzala uzteko aukera izatea da hori.

Gustura beraz aldaketarekin?

Gustura. Jendeak ongi hartzen ditu proposamenak, lan egiteko aukerak daude, entzun eta erabakiak hartzeko aukerak daukazu. Gustuko gauza da, beraz horrela primeran.



**MOJITOAK
KOKTEL BEREZIAK**
astebukaeretan

**Ostegunetan
PINTXO POTE**

ZULO

Asteazkenetik igandera

17:00etatik aurrera

IREKITA

Zulo Aretoa: Hipódromo Etorbidea 11, Lasarte

WWW.SALAZULO.COM